

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	OSTATUETAKO ARROPA-LISAKETA ETA -KONPONKETA	Iraupena	90
Kodea	MF0708_1		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Ostatatzea.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ostatuetako solairuetako oinarrizko lanak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Ostatuetako sukalondoaren hornikuntza eta antolamendua	Iraupena	30
	Ostatuetako solairuen eta zona komun garbiketa eta prestaketa		60
	Bezeroarentzako arreta ostatuetako solairuen garbiketan		30
	Ostatuetako arropa-garbiketa		90
	Ostatuetako solairuetako oinarrizko eragiketako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC1308_1: OSTATATZE-ESTABLEZIMENDUEN ARROPA LISATZEKO ETA KONPONTZEKO JARDUERAK EGITEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ahozko eta idatzizko informazioa zuzen interpretatzea, jarraibideak izan, oharrak izan, produktu kimikoen zehaztapen teknikoak edo etiketak izan, edo arropa lisatzeko eta konpontzeko prozesuan eta ehun-gai sinpleak egitean erabiltzen diren txartelak bestelako dokumentuak izan.

EI1.1 Arropa lisatzeko eta konpontzeko prozeduretan erabili ohi diren produktuen etiketak interpretatzea.

EI1.2 Produktu kimikoen etiketan erabiltzen diren kontserbazioari eta manipulazioari buruzko sinboloak interpretatzea.

EI1.3 Mihiseriarekin lotutako jardueretan erabili ohi diren dokumentuak identifikatzea eta betetzea, hala nola sarrerak eta irteerak justifikatzeko kontrol-dokumentuak eta askotariko gertakarien ondoriozko bajetarako dokumentuak.

EI1.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, kontaketa egitea eta aurreko kontaketen ondoriozko datuak eguneratzea, biltegiko altak eta bajak jasoz.

EI1.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, zuzen helaraztea detektatutako anomaliari eta disfuntzioei buruzko informazioak edo norberaren behaketaren ondoriozko informazioak.

EI1.6 Ahozko informazioa jasotzeko eta emateko zenbait egoeratan: zuzen interpretatzea jasotako informazioa, mezu argiak eta zehatzak ematea, eta ziurtatzea solaskideak ulertzen dituela.

EI1.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, kalitatearen esparruko prozesuak gauzatzeari buruzko egiaztagiria betetzea.

A2: Arropak lisatzeko sailkatzea.

EI2.1 Arropa-motak bereiztea eta identifikatzea.

EI2.2 Arropen konposizio- eta kontserbazio-irizpideak identifikatzea, haien etiketak interpretatuz.

EI2.3 Arropa-, ehun-, zuntz- eta akabera-motak eta establezimendu-motaren arabera ezarritako lan-dinamikak kontuan harturik, hautespen-teknikak deskribatzea.

EI2.4 Motaren eta konposizio- eta kontserbazio-eskakizunen arabera sailkatzea arropak.

EI2.5 Lisatzeko prozesuak eta tratatu behar ditugun jantzien ezaugarrien arabera aplikazioa identifikatzea.

EI2.6 Arropa lisatzeko sailkatzeko kasu praktiko bat, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daukana, abiapuntutzat hartuta:

- Arropa loteka bereiztea, arropa-motaren arabera eta etiketako kontserbazio-eskakizunen arabera.
- Lisaketa-mota bera jaso behar duten arropak multzokatzea.
- Etiketaren arabera tratamendu berezi bat —erabili ohi den tratamenduaz bestelakoa— behar duten jantziak bereiztea.
- Akabera bera duten arropak multzokatzea.
- Etiketarik ez duen arropa bereiztea, eta jarraibideak jaso arte itxarotea.
- Sailkatutako arropa dagozkion edukiontzietan jartzea.

A3: Arropa lisatzeko, tolesteko eta aurkezteko teknikak deskribatzea eta erabiltzea, prozedura egokia aplikatuz eta finkatutako makineria erabiliz.

- EI3.1 Produktuen barne-hornikuntzako prozesua egitea, zerbitzu-agindu jakin batzuei edo eguneko lan-planei jarraikiz.
- EI3.2 Arropa lisatzeko eta tolesteko erabili ohi diren makina-, tresna- eta erreminta-motak, haien maneiua, garbiketa eta erabilerako mantentze-lanak azaltzea.
- EI3.3 Lisatzeko erabiltzen diren aditiboak eta gainerako produktuak deskribatzea, eta haien aplikazioak eta erabilera-neurriak eta -arriskuak adieraztea.
- EI3.4 Arropa lisatzeko prozesuak deskribatzea, arropa-, ehun- eta zuntz-motaren arabera eta erabil daitezkeen makineriaren arabera.
- EI3.5 Arropa lisatzeko, tolesteko eta aurkezteko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, loteari dagozkion jarraibideak eta fitxa teknikoa kontuan izanik:
- Lisatzearen ezaugarriak eta lisatu beharreko arropa-lotea aurkezteko eta tolesteko jarraibideak identifikatzea.
 - Lisatzeko lanak egiteko makinak prestatzea eta programatzea, arreta berezia jarriz lotearen ezaugarriak eta zehaztapenei.
 - Tolesteko makineria prestatzea eta programatzea.
 - Beharrezkoa bada, arropak poltsaratzeko edo zigilatzeko makinak doitztea.
 - Arropak lisatzeko, tolesteko eta zigilatzeko prozesuan sortu eta detektatutako anomaliak jakinaraztea, eta anomalia horien eraginpean dauden arropak baztertzea.
- EI3.6 Instalazioak eta ekipoak mantentzeko eta zaintzeko konpromisoa hartzea, eta prozesuan erabilitako produktuei ahalik eta etekinik handiena ateratzea, beharrezkoak ez diren kostuak eta higadurak saihestuz.
- EI3.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, prozesu osoan kalitatea hobetzen parte hartzea.

A4: Eskuz edo makinaz josteko teknikak deskribatzea eta aplikatzea, baliabide eta material egokiak erabiliz.

- EI4.1 Produktuen barne-hornikuntzako prozesua egitea, zerbitzu-agindu jakin batzuei edo eguneko lan-planei jarraikiz.
- EI4.2 Arropa josteko erabili ohi diren makina-, tresna- eta erreminta-motak azaltzea, baita haien maneiua, garbiketa eta erabilerako mantentze-lanak nola egin behar diren ere.
- EI4.3 Eskuz edo makinaz egin daitezkeen konponketa errazen edo jostura-ukituen kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:
- Arropak josteko prozesuan erabiliko diren makinaren eta osagarrien funtzionamendua eta doikuntza egokiak direla egiaztatzea.
 - Beharrezko materialak eta tresnak hautatzea.
 - Loturako eta tolesturako josturak eskuz edo makinaz egitea, botoiak jostea, eta kremailerak, autoitsasgarriak eta beste elementu batzuk itsastea.
 - Arropa errazak egitea, hala nola sukaldari-zapiak, ezpain-zapiak, mantalak edo eskutrapuak.
 - Arropetan pasaratze errazak egitea.
- EI4.4 Instalazioak eta ekipoak mantentzeko eta zaintzeko konpromisoa hartzea, eta prozesuan erabilitako produktuei ahalik eta etekinik handiena ateratzea, beharrezkoak ez diren kostuak eta higadurak saihestuz.
- EI4.5 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, prozesu osoan kalitatea hobetzen parte hartzea.

A5: Ostatatzearen eremuko produktuak, tresnak eta mihiseria biltegitratzeko, kontrolatzeko eta mantentzeko teknikak aplikatzea.

- EI5.1 Izakinak jasotzeko, biltegitratzeko, barne-banaketa egiteko eta bidaltzeko administrazio-prozedurak azaltzea, eta sortzen diren dokumentuen funtzioak eta eskakizun formalak zehaztea.
- EI5.2 Izakinak sailkatzeko eta kokatzeko gehien erabiltzen diren irizpideak azaltzea.
- EI5.3 Gehien erabiltzen diren inbentario-motak deskribatzea, eta haien ezaugarriak eta xedea azaltzea.
- EI5.4 Stock egokia, gutxieneko stocka eta stock-haustura kontzeptuak zehaztea, eta haien kalkuluan eragiten duten aldagaiak identifikatzea.
- EI5.5 Produktuen, tresnen eta mihiseriaren barne-hornikuntzarako erabiltzen den dokumentazioa interpretatzea eta betetzea.
- EI5.6 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, produktuen, tresnen eta mihiseriaren mantentze-lanak egitea eta haien faltak osatzea, eta, hala, aldeztu aurretik finkatutako stockak betetzea eta izakinen iraungipena kontrolatzea.
- EI5.7 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, biltegitratzeko prozesuan sortu eta detektatutako anomaliak jakinaraztea, eta anomalia horien eraginpean dauden produktuak baztertzea, definitutako jardun-protokoloari jarraikiz.
- EI5.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, izakinak jasotzeko, biltegitratzeko eta banatzeko prozesuetan parte hartzeak eskatzen duen erantzukizunez eta zintotasunez jardutea.

A6: Ostatatze-establezimenduetako arropa lisatzeko, konpontzeko eta egiteko prozesuetan segurtasuna, higiena eta osasuna zaintzeko arauak eta barne-neurriak ezagutzea eta aplikatzea.

- EI6.1 Indarrean dauden segurtasunaren, higienaren eta osasunaren arloko arauak interpretatzea; zehazki, ostatatze-establezimenduetako arropa lisatzeari, konpontzeari eta egiteari eta erabiltzen diren lokalei, instalazioei eta ekipoari lotutakoak.
- EI6.2 Ekipoak, makinak eta tresnak maneiatzeko beharrezko babesak identifikatzea eta zuzen erabiltzea, eta egoki interpretatzea produktuak eta makineria maneiatzeko segurtasun- eta higiena-araudia.
- EI6.3 Makinak, tresnak eta erremintak oker erabiltzearen ondoriozko kalteak eta arriskuak identifikatzea.
- EI6.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkaten kasu praktikoetan, segurtasun- eta ingurumen-irizpideak aplikatzea produktu kimikoak maneiatzean.

Edukiak

1. Lisatzeko eta josteko lantegiko administrazio-prozedurak eta barne-komunikazioa

- Ostatuetako lisatzeko eta josteko lantegiko komunikazioaren barne-zirkuituak.

- Beste sail batzuekiko harremanak: solairuak eta garbategia.
- Lisatzeko eta josteko lantegian erabiltzen den dokumentazioa. Dokumentu-motak, eta haien betetzeko modua.

2. Ostatuetao lisatzeko arroparen sailkapena

- Lisatzeko arropen etiketen sinbologia.
- Zuntz-moten sailkapena, lisatzeko garaian duten portaeraren arabera.
- Lisatzeko garaian oihal-motek duten portaera.
- Lisatzeko arropa sailkatzeko teknikak: Identifikazioa. Deskribapena. Aplikazioa

3. Ostatuetao arropa lisatzea, tolestea, paketatzea edo poltsaratzea

- Lisatzeko eta tolesteko prozesua. Lisaketa: motak. Eraginkortasunean eragiten duten faktoreak: tenperatura, presioa, lurruna, denbora eta hezetasuna. Lisatze eta toleste mekanikoko programak. Energia aurrezteko oinarritzko teknikak. Faktoreak. Aplikazioak.
- Makineria espezifikoak: Ezaugarriak, funtzionamendua eta erabiltzeko neurriak, makinaria-motaren arabera. Lisatzeko prentsak. Tenkagailuak. Sargailuak. Tolesgailu mekanikoak. Arrabolak. Kalandrak.
- Lisatzeko eta tolesteko elementu osagarriak: mahaiak, esekitokiak, manikiak, kuxinak, azpilak eta poltsak.
- Lisatzearekin lotzen diren produktuen ezaugarriak, funtzioak eta oinarritzko erabilera-arauak.
- Arropa paketatzeko edo poltsaratzeko prozesua: Motak. Aplikazioak.

4. Ostatuetao josteta

- Josteko materialak.
- Josteko makina: Motak. Funtzionamendua. doikuntza.
- Josteko oinarritzko teknikak eta haien aplikazioa: eskuz; makinaz.
- Pasaratzea: Motak. teknika; Aplikazioak.

5. Arropak eta lisatzeko produktuak biltegitratzea eta banatzea

- Izakinak jasotzeko, biltegitratzeko, barnean banatzeko eta bidaltzeko administrazio-prozesuak.
- Lisatutako arropen barne-banaketa.
- Lisatzeko produktuen eta tresnen biltegitratzea antolatzeo prozesua.
 - Biltegitratzeko sistemak aplikatzea:
 - Arropak biltegitratzeko irizpideak: abantailak eta eragozpenak.
 - Produktuen sailkapena.
- Stockak kudeatzeko prozedurak aplikatzea.
 - Stockak sailkatzeko irizpideak aplikatzea.
 - Mihiseriaren izakinen errotazioaren eta kokapenaren analisisa.
 - Biltegitratzeo fitxak betetzea.

6. Ostatatze-establezimenduen arropa lisatzeko eta konpontzeko prozesuetako segurtasunari, higieneari eta osasunari buruzko araudia

- Araudi espezifikoak identifikatzea eta interpretatzea.
- Arropa lisatzeko eta konpontzeko instalazioen eta ekipoen higiene-baldintza orokorrak.
- Osasun eta higiene pertsonala: Faktoreak. neurrak; materialak eta aplikazioak; zauriak eta haien babesak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak:
 - Lisatzeko eta josteko lantegian.
 - Lisatzeko eta josteko makinak, ekipoa eta tresnak erabiltzean.
- Norberaren segurtasunerako ekipamendua. Babes-jantziak: motak, egokitzapena eta araudia.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko baldintzarik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ostatuetao solairuetako oinarritzko lanak